



## Gernikako jaietan eraso matxista bat gertatu da

---

AGENTZIAK/LA HAINE :: 16/08/2024

Bestetik, 40 urteko gizon batek emakume bati ukituak egin dizkio Gasteizen.

Gernika-Lumoko jaietan (Bizkaia) indarkeria matxistako kasu bat gertatu dela salatu du erasoen aurkako protokoloa landu duen taldeak. Zehaztu dute erasoa asteazken gauean gertatu zela, txosnetan. Gertatutakoa salatu eta gaitzesteko, elkarretaratzea egingen dute gaur, 20:00etan, Pasilekuko eskaileretan.

Gasteizen 40 urteko gizon bat atxilotu dute emakume bati ukituak egitea egotzita. Herenegun gertatu zen, Arriaga auzoan. Gizona epailearen esku utzi zuten atzo, eta aske gelditu zen gero.

---

<https://eh.lahaine.org/gernikako-jaietan-eraso-matxista-bat>